

FILM LABURREN ETA BIDEOKLIPEN 3. LEHIAKETA ATZEGI 2010

desde 1960
imaginando...
50 1960-2010
urte



Atzegik 50 urte bete ditu.

50 urte izugarritzko gauza pila imajinatzen eta, arko eta arko, betetzen. Oraindik ere oztoporik geratzen den? Jakina, baina jarrai dezagun imajinatzen.

PROTAGONISTAK IZATEA IMAJINATZEN DUGU

Aurten, gai honen inguruan egin dugu film laburren eta bideoklipen lehiaketa deialdia: **Imajina ditzagun adimen urritasuna duten pertsonak hemendik 20 urtera, 30 urtera, beste 50 urtera.**

imajina ezazu

Aurten, bideoklip lehiaketa ere sartu dugu, pertsona gehiagok parte har dezan. Izan ere, argazki batzuekin (bideoa hobe) eta musika pixka batekin, bideoklipa egin eta lehiaketan parte har dezakezu.

LEHIAKETAREN OINARRIAK

18 urtetik gorako pertsona guztiek har dezakete parte lehiaketan, norik bere izenean edo elkarte nahiz erakunderen bat ordezkatzuz.

Partehartzaile bakoitzak nahi adina film labur eta bideoklip aurkez ditzakete.

Lanen gehieneko iraupena: 12 minutu film laburren eta 4 minutu bideoklipena.

Adimen urritasuna duten pertsonen partaidetza ugaria aintzat hartuko da.

Lehiaketaren helburua hauxe da: aurkezten diren film laburrek eta bideoklipek urritasunen bat duten pertsonak etorkizunean nola biziko diren erakustea, eguneroko bizimoduan moldatzeko eta parte hartzeko —protagonista izateko— behar dituzten baliabideak jarriko dizkien gizarte batean.

Imajinatzea da kontua!

Lehiaketara aurkeztutako film labur eta bideoklipek originalak izan behar dute, eta horietan azaltzen diren irudi eta soinuek copyrightari eta irudi eskubideari buruzko legeek finkatzen dutena hartu beharko dute aintzat, Atzegik ez dezan inolako erantzukizunik izan saritutako lanak erabiltzeko orduan.

Lanak Atzegein entregatu behar dira (Okendo kalea, 6 behea. 20004 Donostia), 2010eko apirilaren 30a baino lehen.

Hautaketa prozesuan sartu ahal izateko, DVD formatuan aurkeztu behar dira film laburrak, eta movimakerren, pinaclen... bideoklipak.

Saritutako hiru lanen banaketa eta proiektzio eskubideak Atzegiri utziko zaizkio, betiere helburu komertzialetarako ez erabiltzeko.

Saririk lortu ez duten lanak parte-hartzaileen esku geldituko dira, eta Atzegiren bulegoetan jaso ahal izango dira.

Epaimahaia ikus-entzunezkoekin eta adimen urritasunaren inguruko elkartegintzarekin hertsiki lotutako pertsonen osatuko dute: Juan Miguel Gutierrez, Jose Luis Rebordinos, Begoña del Teso, eta Mitxel Lakunza.

Lanen aurkezpenak oinarri hauen onarpenera dakar.

Hiru lan finalistak jendaurreko emanaldi berezi batean proiektatuko dira 2010eko maiatzean, Atzegiren urteroko sentsibilizazio kanpainaren aurkezpenarekin bat eginez. Saio horretan bertan egingo da sari banaketa ere.

FILM LABURREN SARIAK

Aurreneko saria: 1.500 € eta lau lagunentzako bidaia (garraioa eta ostatua) Gorgonzolara (Italia), saritutako filma hiri horretan 2010eko urriaren egingo den Festival de Cinema Nuovo zinemaldiaren VI. Edizioan aurkeztu ahal izateko.

Bigarren saria: 1.200 €.

BIDEOKLIPEN SARIA

Saria: 600 €.

Sari bereziak emakumezko eta gizonezko aktore onenarentzat.

Datuok hona bidal ditzakezue: **Faxeaz (943 42 39 45) edo posta elektronikoz:**

PROTAGONISTAK IZATEA IMAJINATZEN DUGU IZENA EMATEKO FITXA FILM LABURREN ETA BIDEOKLIPEN 3. LEHIAKETA. ATZEGI 2010

- IZENA.....
- ABIZENAK.....
- HELBIDEA.....
- POSTA KODEA..... ■ HERRIA.....
- PROBINTZIA..... ■ TELEFONOA.....

Elkarte, erakunde edo talde profesionalen baten ordezkari bazara, adieraz ezazu, arren.

.....



patrocina:

